

DEIALDIA / CONVOCATORIA

OSASUN BATZORDEA

COMISIÓN DE SALUD

- **Eguna:** 2019/12/03
- **Ordua:** 12:30
- **Tokia:** 2. ARETOA

- **Día:** 03/12/2019
- **Hora:** 12:30
- **Lugar:** SALA 2

GAI ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

1.- Akta

2019ko azaroaren 26an egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea.

1.- Acta

Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la sesión celebrada el día 26 de noviembre de 2019.

2.- Batzordeak eskatutako agerraldia

Azaltzeko ARABA ESiko mantenimendu-langileen jarrera, mantenimendu-lanak pribatizatze arriskuaren harira.

2.- Comparecencia a petición de la comisión

Para explicar la posición del personal de mantenimiento de la OSI ARABA ante el riesgo de privatización de los trabajos de mantenimiento.

- **Egilea:** Osasun Batzordea
- **Norentzat:** Araba ESiko mantentze-lanetako langileak

- **Autor:** Comisión de Salud
- **Para:** Personal de mantenimiento de la OSI Araba

[\(11\10\06\03\00756\)](#)

[\(11\10\06\03\00756\)](#)

3.- Batzordeak eskatutako agerraldia

Azal dezaten jarduera fisikoaren bidez inklusioa lortzeko egiten duten lana. [\(2019/5786\)](#)

3.- Comparecencia a petición de la comisión

Para dar explicaciones sobre la labor que realizan para conseguir la inclusión por medio de la actividad física. [\(2019/5786\)](#)

- **Egilea:** Osasun Batzordea
- **Norentzat:** GaituzSport fundazioa

- **Autor:** Comisión de Salud
- **Para:** Fundación GaituzSport

[\(11\10\06\03\00744\)](#)

[\(11\10\06\03\00744\)](#)

4.- Legez besteko proposamena

Durango etenik gabeko arretagunean erizain-kopuru egokia jartzeari buruz. [\(2019/4735\)](#)

4.- Proposición no de ley

Sobre la dotación adecuada de personal de enfermería en el punto de atención continuada de Durango. [\(2019/4735\)](#)

- **Egilea:** Popular Vasco-Euskal Talde Popularra LT (PV-ETP LT)
- **Norentzat:** Osasun Batzordea

- **Autor:** GP Popular Vasco-Euskal Talde Popularra (GP PV-ETP)
- **Para:** Comisión de Salud

[\(11\11\02\01\00632\)](#)

[\(11\11\02\01\00632\)](#)





**5.- Legez besteko proposamena**  
**Euskal Autonomia Erkidegorako Alzheimerren**  
**gaineko plan integral bat egiteari buruz.**  
[\(2019/4893\)](#)

- **Egilea:** Popular Vasco-Euskal Talde Popularra LT (PV-ETP LT)
- **Norentzat:** Osasun Batzordea

[\(11\11\02\01\00641\)](#)

**6.- Beste batzuk**  
**Eskariak eta galderak.**

Eusko Legebiltzarra, 2019ko azaroaren 28a

**5.- Proposición no de ley**  
**Relativa a la elaboración de un plan integral de**  
**Alzheimer para la Comunidad Autónoma del País**  
**Vasco.** [\(2019/4893\)](#)

- **Autor:** GP Popular Vasco-Euskal Talde Popularra (GP PV-ETP)
- **Para:** Comisión de Salud

[\(11\11\02\01\00641\)](#)

**6.- Otros**  
**Ruegos y preguntas.**

Parlamento Vasco, 28 de noviembre de 2019





2019 ABU. 01  
AGO. 01

SARRERA 4130 IRTEERA  
ENTRADA ..... SALIDA .....

## A LA MESA DE LA COMISIÓN DE SANIDAD DEL PARLAMENTO VASCO

Desde la asamblea de trabajadores/as del servicio de mantenimiento de la OSI ARABA, solicitamos comparecer en la comisión de sanidad del parlamento vasco con la intención de explicar nuestra posición ante el inminente riesgo de privatización de los trabajos de mantenimiento de las nuevas y actuales instalaciones.

### JUSTIFICACIÓN

Estamos viendo con preocupación el deterioro del servicio de mantenimiento de la OSI ARABA en estos últimos años.

Cada día son más los trabajos de mantenimiento realizados por la empresa privada en detrimento del servicio público y la consiguiente amortización y/o desaparición de plazas en esta categoría.

Como ejemplo, el incremento de las instalaciones de mantenimiento sin el consiguiente aumento de la plantilla y las diferentes licitaciones donde se pretende adjudicar el mantenimiento a la empresa privada. Nos preocupa especialmente la gestión del mantenimiento de los nuevos edificios que actualmente se están construyendo en el HUA. Así mismo, la previsión y provisión de personal de mantenimiento de Osakidetza para estas nuevas instalaciones.

Por ello, solicitamos a la mesa de sanidad del parlamento vasco una comparecencia para profundizar sobre el tema y buscar soluciones para garantizar la cobertura pública de los trabajos inherentes a la salud pública.

Cc

Gasteiz, 31 de Julio de 2019.

Joseba Álvarez de Eulate

Asamblea de trabajadores/as de mantenimiento de la OSI ARABA

Dokumentu mota: Agerraldia antolatzeko Eskaria

Nori zuzendua: GaituzSport Fundazioarena

Izapidetze organoa: Osasun Batzordea

Proposatzailea: Rebecka Ubera Aranzeta

Talde parlamentarioa: EH Bildu

Ekimenaren izenburua: Osasun eremuan aktibitate fisikoaren bidez inklusioa lortzeko egiten duten lanketari buruzkoa.

## **ZIOA**

Osasun eremuan, desgaitasuna duten herritarrei begira eta haiekin elkarlanean ezar daitezkeen politikak, osasunean izan dezaketen ondorioez gain, gizartean inklusioa lortu ahal izateko bitartekoak ere badira. Zentzu horretan, jarduera fisikoak jokatu dezakeen papera gakoa izan daiteke. Gogoratu, sedentarismoari, gehiegizko pixuari aurre egiteko estrategiak badituela Osasun Sailak eta eremu horietan ere begirada zabaltzea eta desgaitasuna duten herritarrak ere kontutan izatea ezinbestekoa da. Jakin dugunez, GaituzSport fundazioa lanean ari da besteak beste osasun eremuan, jarduera fisikoa tresna gisa ikuspegi komunitario batetik desgaitasuna daukaten herritarrei beraien ingurunean, bizitzan ohitura osasuntsuak eskuratzeko eta inklusioa ahalbidetzeko. Hori dela eta, komenigarria ikusi dugu GaituzSport -ek osasun eremuan egiten duen lana lehen eskutik ezagutzeko, osasun batzordera gonbidatzea; horrela, behar bereziak dituzten herritarrek eskura izan ditzaketen baliabideen diagnostikoa osatzen joateaz gain, dauden gabeziak eta beharrak hobeto identifikatzeko.

## **AGERRALDIA antolatzeko ESKARIA**

Osasun Batzordeko Mahaiari, GaituzSport Fundazioaren agerraldia antolatzeko eskaria egiten diogu; azal dezaten osasun eremuan ikuspegi komunitariotik inklusioa xede izan da, jarduera fisikoaren bidez egiten duten lana.

Euskal Herrian, 2019ko azaroaren 12an

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea

Rebeka Ubera Aranzeta



**EUSKO LEGEBILTZARRA**  
**PARLAMENTO VASCO**  
**ITZULPEN ZERBITZUA**  
**SERVICIO DE TRADUCCIONES**

Tipo de documento: Solicitud de comparecencia

Dirigida a: GaituzSport Fundazioa

Órgano de tramitación: Comisión de Salud

Proponente: Rebeka Ubera Aranzeta

Grupo parlamentario: EH Bildu

Título de la iniciativa: Sobre el trabajo que realizan en el ámbito de la salud para conseguir la inclusión por medio de la actividad física

## JUSTIFICACIÓN

En atención a las personas con discapacidad y en colaboración con ellas, las políticas que se pueden establecer en el ámbito de la salud, además de las consecuencias que pueden tener sobre la salud, también son un medio para poder alcanzar la inclusión en la sociedad. En este sentido, el papel que puede jugar la actividad física puede ser clave. Recordar que el Departamento de Salud tiene estrategias para hacer frente al sedentarismo y al exceso de peso y que, en dichos ámbitos, es fundamental extender la mirada y tener en cuenta a los ciudadanos y ciudadanas con discapacidad. Según hemos sabido, la fundación GaituzSport está trabajando, entre otros, en el ámbito de la salud, valiéndose de la actividad física como herramienta y desde un punto de vista comunitario, para que las personas con discapacidad adquieran en su entorno hábitos de vida saludables y posibilitar su inclusión. En consecuencia, hemos considerado conveniente, con el fin de





conocer la labor que GaituzSport realiza en el ámbito de la salud, invitarles a la Comisión de Salud, para que así, además de ir completando el diagnóstico de los recursos que pueden tener a su disposición las personas con necesidades especiales, se puedan identificar las carencias y necesidades existentes.

### SOLICITUD DE COMPARECENCIA

Solicitamos a la Mesa de la Comisión de Salud que organice la comparecencia de GaituzSport, para que expliquen la labor que realizan a través de la actividad física, en el ámbito de la salud y desde un punto de vista comunitario, teniendo como finalidad la inclusión.

En Euskal Herria, a 12 de noviembre de 2019

Parlamentaria y portavoz suplente de EH Bildu

Rebeka Ubera Aranzeta



***Sobre la dotación adecuada de personal de enfermería en el punto de atención continuada de Durango*** (Admisión a trámite)  
(11/11.02.01.00632)

La Mesa, en su reunión del día 1 de octubre de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Salud, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Laura Garrido Knörr, parlamentaria del grupo Popular Vasco, al amparo del vigente Reglamento, tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno, sobre la dotación adecuada de personal de enfermería en el punto de atención continuada de Durango.

**Justificación**

El pasado 19 de junio de 2019, se aprobó una enmienda de transacción con relación a la Proposición no de Ley 67/2019, sobre aumentar el personal de enfermería para mejorar el servicio del punto de atención continuada de Durango, con el siguiente texto:

"El Parlamento insta al Departamento de Salud a que, junto con Osakidetza, al objeto de mejorar el servicio del punto de atención continuada de Durango, adopte las medidas necesarias sobre la plantilla, entre otras, valorando y propiciando el consenso con las y los profesionales del PAC de Durango sobre la posibilidad de dotar de dos personas enfermeras presenciales por turno, atendiendo a criterios de eficiencia y equidad".

Transcurridos cuatro meses desde su aprobación, no se tienen noticias sobre la adopción de las medidas necesarias contempladas en dicha propuesta.

Por todo lo anteriormente expuesto, se somete a la consideración de la Cámara la siguiente proposición no de ley:

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a dar cumplimiento al acuerdo de la Proposición no de Ley 67/2019, sobre aumentar el personal de enfermería para mejorar el servicio

***Durangoko etenik gabeko arretagunean erizain-kopuru egokia jartzeari buruz*** (Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.02.01.00632)

Mahaiak, 2019ko urriaren 1eko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Osasun Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Laura Garrido Knörr Euskal Talde Popularrak legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, honako legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Durangoko etenik gabeko arretagunean erizain-kopuru egokia jartzeari buruz.

**Arrazoiak**

Iragan 2019ko ekainaren 19an, erdibideko zuzenketa bat onetsi zen, Durangoko etenik gabeko arretagunearen zerbitzua hobetzeko erizainak areagotzeari buruzko 67/2019 Legez besteko Proposamenaren inguruan.

"Legebiltzarrak Osasun Sailari eskatzen dio ezen, Osakidetzarekin batera, hobetzeko helburuz Durangoko etengabeko arretako gunearen zerbitzua, har ditzala plantillari buruz behar diren neurriak, besteak beste, baloratuz eta adostasuna faboratuz Durangoko EAGko profesionalekin txandako bi erizain presentzial jartzeko aukerari buruz, ekitate- eta efizientzia-irizpideak kontuan izanez".

Onetsi zenetik lau hilabete igaro diren honetan, ez dago berririk proposamen horretan beharrezkotzat jotako neurriak hartu ote diren.

Aurretik azaldutako guztiagatik, honako legez besteko proposamen hau aurkezten da, Legebiltzarrak ebatz dezan:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bete dezala 67/2019 Legez besteko Proposamenean jasotako akordioa, Durangoko etenik gabeko arretagunearen zerbitzua





del punto de atención continuada de Durango,  
aprobada en comisión el 19 de junio de 2019.

En Vitoria, a 27 de septiembre de 2019

**Laura Garrido Knörr, parlamentaria del  
grupo Popular Vasco. Borja Sémpér Pascual,  
portavoz**

hobetzeko erizainak areagotzeari buruzkoa,  
zeina batzordean onetsi baitzen, 2019ko  
ekainaren 19an.

Gasteizen, 2019ko irailaren 27an

**Laura Garrido Knörr Euskal Talde  
Popularreko legebiltzarkidea. Borja Sémpér  
Pascual, bozeramailea**

\*\*\*

\*\*\*

***Durangoko etenik gabeko arretagunean erizain-kopuru egokia jartzeari buruz*** (Zuzenketa)  
(11/11.02.01.00632)

Mahaiak, 2019ko urriaren 22ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea Euskal Talde Parlamentario Popularraren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Osasun Batzordeari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK**  
**TALDE PARLAMENTARIOAK**

#### **OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak, 2019ko ekainaren 19ko Osasun Batzordean 67/2019 Legez besteko Proposamenaren inguruan aho batez hartutako erabakia berretsiz, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala garatzen dagoeneko abiatutako jarduerak, Durangoko etengabeko arretako guneko erizaintzako langileak egokitzen bideratutakoak, etengabeko arretako gunen zerbitzua hobetze aldera".

\*\*\*

***Sobre la dotación adecuada de personal de enfermería en el punto de atención continuada de Durango*** (Enmienda)  
(11/11.02.01.00632)

La Mesa, en su reunión del día 22 de octubre de 2019, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión a la Comisión de Salud y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS**  
**VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

#### **ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco, ratificando el acuerdo adoptado por unanimidad en la Comisión de Salud del 19 de junio de 2019 en relación con la Proposición no de Ley 67/2019, insta al Gobierno Vasco a que continúe en la senda de desarrollo de las actuaciones ya iniciadas, orientadas a la adecuación del personal de enfermería del punto de atención continuada de Durango, para mejorar el servicio de dicho PAC".

\*\*\*



**Relativa a la elaboración de un plan integral de Alzheimer para la Comunidad Autónoma del País Vasco** (Admisión a trámite)  
(11/11.02.01.00641)

La Mesa, en su reunión del día 8 de octubre de 2019, acuerda admitir a trámite, para su debate en comisión, la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Salud, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar, dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación, las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Laura Garrido Knörr, parlamentaria del grupo Popular Vasco, al amparo del vigente Reglamento, tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno, relativa a la elaboración de un plan integral de Alzheimer para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Justificación

De acuerdo con la definición de la OMS, *demencia* es un término genérico para referirse a varias enfermedades, en su mayoría progresivas, que afectan a la memoria, a otras capacidades cognitivas y al comportamiento, y que interfieren notablemente en la capacidad de la persona para llevar a cabo las actividades cotidianas. La forma más común de demencia es la enfermedad de Alzheimer, que puede representar entre un 60 % y un 70 % de los casos. Otras formas frecuentes son la demencia vascular, la demencia por cuerpos de Lewy y un grupo de enfermedades que contribuyen a la demencia frontotemporal. Los límites entre las distintas formas de demencia son difusos, y frecuentemente coexisten formas mixtas.

EL término *alzhéimer* hace referencia tanto a la enfermedad de Alzheimer como a otras demencias. Es decir, el término utilizado se corresponde, más que a una entidad clínica o neuropatológica definida, a una condición de salud capaz de abarcar a las demencias (enfermedad de Alzheimer (EA), demencia por cuerpos de Lewy (DLB), demencia frontotemporal (DFT), demencia vascular (DV) entre otras.

Por otro lado, aunque se utilice el término enfermedad de Alzheimer o personas con alzhéimer de forma genérica, algunas de las demencias que abarca se pueden detectar mediante diversas exploraciones, antes de la fase de demencia, sin que por ello queden

**Euskal Autonomia Erkidegorako Alzheimerraren gaineko plan integral bat egiteari buruz** (Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.02.01.00641)

Mahaiak, 2019ko urriaren 8ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Osasun Batzordeari bidal dakielara eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Laura Garrido Knörr Euskal Talde Popularrak legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, honako lege besteko proposamen hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Euskal Autonomia Erkidegorako Alzheimerraren gaineko plan integral bat egiteari buruz.

Arazoia

OMEren definizioaren arabera, *dementia* termino generiko bat da hainbat gaixotasun aipatzeko, gehienak progresiboak, memoriari, beste gaitasun kognitibo batzuei eta portaerari eragiten dietenak, eta pertsonak eguneroko jarduerak egiteko duen gaitasunean eragin nabarmena dutenak. Dementia mota ohikoena Alzheimerren gaixotasuna da, kasuen % 60 eta % 70 artekoa izan baitaiteke. Dementziaren ohiko beste forma batzuk demencia baskularra, Lewyren gorputzen ondoriozko demenzia eta demenzia frontotemporalak eragiten duen gaixotasun-talde bat dira. Dementia forma ezberdinen arteko mugak lausoak dira, eta sarri batera forma mistoak egoten dira.

*Alzheimer* terminoak Alzheimerren gaixotasunari zein beste demenzia batzuei egiten die erreferentzia. Hau da, erabilitako terminoa, entitate kliniko edo neuropatologiko definitu bati baino gehiago, demenziak (Alzheimer gaixotasuna (AG), Lewy gorputzen ondoriozko demenzia (DLB), demenzia frontotemporal (DFT) eta demenzia baskularra (DB) hartzeko gai den osasun-baldintza bati dagokio.

Bestalde, Alzheimerren gaixotasuna edo alzheimerra duten pertsonak terminoa oro har erabiltzen bada ere, barne hartzen dituen demenzietako batzuk hainbat esplorazioen bidez antzeman daitezke, demenzia-fasearen aurretik, eta



excluidas cuando abordamos esta cuestión.

La enfermedad del Alzheimer es una patología neurodegenerativa, que se manifiesta a través del deterioro cognitivo y trastornos conductuales. Se caracteriza, en su forma típica, por una pérdida de la memoria inmediata y de otras capacidades mentales, a medida que mueren las células nerviosas y se atrofian diferentes zonas del cerebro. La enfermedad suele tener una duración media aproximada después del diagnóstico de 10 años, aunque esto puede variar en proporción directa con la severidad de la afección en el momento del diagnóstico.

Teniendo en cuenta los diversos sectores de la población que se ven afectados directa o indirectamente por la enfermedad, así como su complejidad, nos encontramos ante una prioridad sociosanitaria, como consecuencia de la confluencia de varios factores relativos a la dimensión y alcance del alzhéimer, así como sobre su elevado impacto económico y social para las personas afectadas, sus familiares cuidadores y el conjunto de la sociedad.

En nuestra Comunidad, esta patología afecta aproximadamente al 8 % de la población mayor de 65 años, unas 38.000 personas, y se prevé que en el año 2050 alcance la cifra de 114.000 personas.

A estas cifras hay que añadir el triple de personas cuidadoras familiares que se ven afectadas en su vida diaria.

Estos datos son lo suficientemente altos como para abordar con rigor medidas que atenúen los efectos de esta patología y desarrollar un Plan Integral de Alzheimer para la Comunidad Autónoma del País Vasco, abordando las 7 esferas de actuación que propone el marco estructural del Plan de Acción Mundial sobre la respuesta de salud pública a la demencia 2017-2025 de la OMS:

1. La demencia como prioridad de salud pública
2. Sensibilización y adaptación a la demencia
3. Reducción del riesgo de demencia
4. Diagnóstico, tratamiento, atención y apoyo de la demencia
5. Apoyo a los cuidadores/as de las personas con demencia
6. Sistemas de información sobre la demencia
7. Investigación e innovación sobre la demencia

Hace pocos meses se presentó el primer Plan Nacional del Alzheimer, que pretende afrontar un claro reto social y sanitario, y que recoge objetivos y medidas transversales para mejorar el diagnóstico de

horregatik ez dira bazterten gai horri heltzen diogunean.

Alzheimerraren gaixotasuna patologia neurodegeneratiboa da, narriadura kognitiboaren eta jokabide-nahasmenduen bidez agertzen dena. Bere forma tipikoan, berehalako oroimenaren eta beste gaitasun mental batzuen galera du ezaugarri, nerbiozelulak hil eta garunaren gunek jakin batzuk atrofiatu ahala. Gaixotasunak 10 urteko batez besteko iraupena izan ohi du diagnostikoaren ondoren, baina hori aldatu egin daiteke diagnostikoa egiten den uneko afekzioaren larritasunaren proportzio zuzenean.

Kontuan hartuta gaixotasunak zuzenean edo zeharka eragiten dien biztanleriaren hainbat sektore, bai eta sektore horien konplexutasuna ere, lehenetasun soziosanitario baten aurrean aurkitzen gara, alde batetik, alzheimerraren dimentsioari eta irismenari buruzko hainbat faktorek bat egitearen ondorioz, bai eta, beste alde batetik, eragindako pertsonentzat, haien senide zaintzaileentzat eta gizarte osoarentzat duen eragin ekonomiko eta sozial handiaren ondorioz ere.

Gure Erkidegoan, patologia horrek 65 urtetik gorako biztanleen % 8ri eragiten dio gutxi gorabehera, 38.000 pertsona ingururi, eta 2050. urtean 114.000 pertsonara iritsiko dela aurreikusten da.

Kopuru horiei gehitu behar zaie beren eguneroko bizitzan eragina jasaten duten familiako zaintzaileen hirukoitza.

Datu horiek nahiko altuak dira patologia horren ondorioak arinduko dituzten neurriak zorrotzasunez aztertzeko eta Euskal Autonomia Erkidegorako Alzheimerraren Plan Integrala garatzeko, OMEren 2017-2025eko demenziari osasun publikoak emandako erantzunari buruzko Munduko Ekintza Planaren egiturazko esparruak proposatzen dituen 7 jarduera-eremuei helduz:

1. Demenzia osasun publikoaren lehenetasun gisa
2. Sentsibilizazioa eta demenziari egokitzea
3. Demenzia-arriskua murriztea
4. Demenziaren diagnostikoa, tratamendua, arreta eta laguntza
5. Demenzia duten pertsonen zaintzaileei laguntzea
6. Demenziari buruzko informazio-sistemak
7. Demenziari buruzko ikerketa eta berrikuntza

Duela hilabete gutxi Alzheimerraren Lehen Plan Nazionala aurkeztu zen, zeinak gizarte- eta osasun-erronka argi bati aurre egin nahi baitio, eta zeinak gaixotasunaren diagnostikoa hobetzeko zeharkako



la enfermedad, así como la atención a las personas afectadas y los familiares que las cuidan.

Por todo lo anteriormente expuesto, se somete a la consideración de la Cámara la siguiente proposición no de ley:

1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a elaborar y poner en marcha un Plan Integral de Alzheimer para la Comunidad Autónoma del País Vasco, en coordinación con el Plan Nacional del Alzheimer, que contemple medidas concretas que contribuyan a mejorar los siguientes aspectos:

- Proporcionar respuestas adecuadas, específicas e integrales de los distintos ámbitos –especialmente, en el sociosanitario– para las personas con la enfermedad y los familiares cuidadores, considerando el binomio paciente-cuidador/a en todas las etapas de la enfermedad.
- Involucrar al conjunto de la sociedad, desde una nueva percepción y consideración hacia las personas con alzhéimer, como personas que no han de ser excluidas o aisladas, sino que deben poder mantener oportunidades de participación en la comunidad como ciudadanía activa con plenos derechos.
- Activar soluciones que contribuyan a frenar el impacto económico y social del alzhéimer en la sociedad actual, y que permitan avanzar hacia la sostenibilidad de los sistemas que proporcionan respuestas a esta realidad.
- Disponer de metodologías, herramientas y dispositivos de información y conocimiento relativos al dimensionamiento y situación de las personas con alzhéimer, así como la investigación biomédica y sociosanitaria, e innovación.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, tanto en la elaboración como en la implantación de dicho plan, se cuente con la participación de los diferentes agentes que trabajan en el ámbito de las personas con alzhéimer y sus familiares cuidadores.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a remitir, anualmente al Parlamento Vasco, la evaluación y el grado de cumplimiento de dicho plan.

En Vitoria, a 4 de octubre de 2019

helburuak eta neurriak jasotzen baititu, bai eta eragindako pertsoneri eta haien zaintzen dituzten senideei arreta ematea ere.

Aurretik azaldutako guztiagatik, honako lege besteko proposamen hau aurkezten da, Legebiltzarrak ebatz dezan:

1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin eta abian jar dezala Euskal Autonomia Erkidegorako Alzheimerraren Plan Integral bat, Alzheimerraren Plan Nazionalarekin koordinatuta, honako alderdi hauek hobetzen lagunduko duten neurri zehatzak jasoko dituen:

- Arlo desberdinetako erantzun egokiak, espezifikokoak eta integralak ematea –bereziki, arlo soziosanitarioan– gaixotasun hori duten pertsonentzat eta senide zaintzaileentzat, paziente-zaintzaile binomioa gaixotasunaren etapa guztietan kontuan hartuta.
- Gizarte osoa, alzheimerra duten pertsoneri buruzko pertzepzio eta kontsiderazio berri batetik abiatuta, baztertuak edo isolatuak izan behar ez diren pertsona gisa inplikatzeko, baizik eta komunitatean eskubide osoko herritar aktibo gisa parte hartzeko aukerei eutsi behar dieten pertsona gisa.
- Alzheimerrak egungo gizartean duen eragin ekonomiko eta soziala geldiarazten lagunduko duten irtenbideak aktibatzea, errealitate horri erantzunak ematen dizkioten sistemen iraunkortasunerantz aurrera egin ahal izateko.
- Alzheimerra duten pertsonen dimentsionamenduari eta egoerari buruzko informazio- eta ezagutza-metodologiak, -tresnak eta -gailuak edukitzea, bai eta ikerketa biomedikoa eta soziosanitarioa eta berrikuntza ere.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, bai plan hori egiterakoan bai ezartzerakoan, egon dadila alzheimerra duten pertsonen eta haien senide zaintzaileen eremuan lan egiten duten eragileen parte-hartzea.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bidal ditzala, urtero Eusko Legebiltzarrera, plan horren ebaluazioa eta betetze-maila.

Gasteizen, 2019ko urriaren 4an



Laura Garrido Knörr, parlamentaria del grupo Popular Vasco. Borja Sémper Pascual, portavoz

Laura Garrido Knörr, Euskal Talde Popularreko legebiltzarkidea. Borja Sémper Pascual, bozeramailea

\*\*\*

\*\*\*



**Euskal Autonomia Erkidegorako Alzheimerren gaineko plan integral bat egiteari buruz**  
(Zuzenketak)  
(11/11.02.01.00641)

Mahaiak, 2019ko urriaren 29ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea Euskal Talde Parlamentario Popularraren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Osasun Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EH BILDU TALDE PARLAMENTARIOA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Ekar dezala Osasunaren Mundu Erakundearen Dementziari osasun publikoak erantzuna emateko mundu-mailako 2017-2025 ekintza-planarekin lerrokatutako eta horren ikuspegi, helburu eta ekintza-eremu eta helmugei jarraikiz osatutako EAErako alzheimerri eta beste demenzia mota batzuei erantzuteko plan integral bat.
2. EAErako alzheimerri eta beste demenzia mota batzuei erantzuteko plan integralak memoria ekonomiko bat jaso dezala eta berau aurrera eramateko zuzkidura ekonomikoak txerta daitezela aurrekontuetan.
3. Alzheimer- eta demenzia-kasuei erantzun egokia eman ahal izateko, EAErako plan integralak osasun-arloan eta, bereziki, gizarte-zerbitzuen sisteman egin beharreko moldaketa eta garapen normatiboak jaso eta horiek burutzeko egutegia ere zehaztuko du".

**EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Kontuan izanik gaixotasun neurodegeneratiboak gaitz kronikoak direla, desgaitasun fisiko, intelektual eta sozial handia eragiteko joera dakartenak eta, ondorioz, dependentzia eta bizi-kalitatea gutxitzea —eta horrek kaltetuen eta senideen pairamen individual eta sozial handia ekartzen duela—, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio:

- 2013-2020 Euskadiko Osasun Planean jasotako konpromiso eta helburuak betetz, garatu dezala Euskadiko Gaixotasun Neurodegeneratibo eta Neuromuskularren Estrategia. Helburua da eragindako pertsonen,

**Relativa a la elaboración de un plan integral de Alzheimer para la Comunidad Autónoma del País Vasco** (Enmiendas)  
(11/11.02.01.00641)

La Mesa, en su reunión del día 29 de octubre de 2019, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión a la Comisión de Salud, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPO PARLAMENTARIO EH BILDU**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento insta al Gobierno a que:

1. Traiga un plan integral de respuesta al alzhéimer y otras demencias para la CAPV, alineado con el Plan de acción mundial sobre la respuesta de salud pública a la demencia 2017-2025 de la OMS y elaborado según la visión, el objetivo y las esferas de actuación y metas de dicho plan.
2. El plan integral de respuesta al alzhéimer y otras demencias para la CAPV recoja una memoria económica, y que se incluyan en los presupuestos dotaciones económicas para llevarlo adelante.
3. Con objeto de dar una respuesta adecuada a los casos de alzhéimer y demencia, el plan integral para la CAPV recogerá las adecuaciones y desarrollos normativos necesarios en el ámbito sanitario y, sobre todo, en el sistema de servicios sociales, y detallará también un calendario para llevarlos a cabo".

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"Teniendo en cuenta que las enfermedades neurodegenerativas son enfermedades crónicas que tienden a generar una gran discapacidad física, intelectual y social y, por lo tanto, dependencia y disminución de la calidad de vida, conllevando un importante padecimiento individual y social de la persona afectada y sus familias, el Parlamento Vasco insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco:

- A que en cumplimiento de los compromisos y objetivos recogidos en el Plan de Salud de Euskadi 2013-2020, desarrolle la Estrategia de Enfermedades Neurodegenerativas y Neuromusculares de Euskadi, con el fin de



zaintzaileen eta senideen arreta osoa hobetzeko tresna bat izatea. Era berean, estrategia horretan alzheimerra, beste demenziak bezala, modu espezifikoan sartu beharko da.

- Ahalik eta azkarren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko sailburuak estrategia hori Ganbera honetan aurkez dezala".

\*\*\*

disponer de un instrumento para la mejora de la atención integral de las personas afectadas, sus cuidadores y familiares. En ese sentido, en dicha estrategia deberá incluirse de manera específica el alzhéimer, así como las demás demencias.

- A que, tan pronto como sea posible, la consejera del Departamento de Salud del Gobierno Vasco presente dicha estrategia en esta Cámara".

\*\*\*

